# OlaBerria

Herri aldizkaria

2016ko abendua nº01 zk.



# aurkibidea / indice

02. Bertsoa. Agurra
03. Galdetegia
04. Internet de las cosas (IOT)
06. Jolas txokoa: 2016-2017 ikasturtea
07. Txirrinduz Olaberritik
08. Jubilatuen martxa / Marcha de jubilados
09. Joxi eta Belen abentura bizikletaz
10. Elikagai freskoak
11. Lekarotzen asteburu pasa / Fin de semana en Lekarotz
12. Laburrean
13. Errezeta / Receta: Raviolis de piña
14. Eliburutegia
16. Kultur agenda

*Irailetik Abendurarte*
*denbora zaigu pasatu*
*herritar askok guri lagundu*
*eta lan ugari hartu*
*ola berri prest daukagu eta*
*orain da argitaratu*
*hau da bigarren alea eta*
*irakurri ta gozatu.*

*(Pello Joxepe)*

# agurra / saludo

Hemen duzue Olaberriko Eskolak herriko hainbat eragileekin elkarlanean egin dugun bigarren alea. Bertan herritarrei interesa piztuko dien gaiak lantzen eta azaltzen saiatu gara.

OlaBerria aldizkariaren 1.aleak izandako arrera ona ikusirik honek ere zuen interesa eta irakurzaletasuna piztuko dizuelakoan agurtzen zaituztegu.

Guztioi mila esker eta segi irakurtzen!

Os presentamos la segunda edición de la revista OlaBerria llevada a cabo por los diferentes componentes del pueblo. En la revista proponemos temas de interés para tod@s los habitantes.

Visto la buena acogida que ha tenido el primer ejemplar de la revista, os saludamos y esperamos que este también suscite el mismo interés y la misma afición por la lectura.

¡Gracias a tod@s y seguir leyendo!




# Galdetegia

Olaberriko eskolako ikasleak herrian zehar ibili dira galdetzen OlaBerria aldizkariari buruz.



## Leire

**Irakurri al duzu "Ola-Berria" aldizkaria?**
Bai eta oso ona da.
**Gustatu al zaizu?**
Bai eta oso entretenitua da.
**Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Dena, orokorrean dena gustatu zait.
**Zer gustatuko litzaizuke aldizkarian irakurtzea?**
Olaberriko produktuei buruzko zerbait.

*Laia Sara Uxue Lorea eta Maia*



## Esti

**Irakurri al duzu "Ola-Berria" aldizkaria?**
Bai, oso osoa irakurri dut.
**Gustatu al zaizu?**
Bai, asko gustatu zait.
**Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Orokorrean dena gustatu zait.
**Zer gustatuko litzaizuke aldizkarian ateratzea?**
Sukaldaritzako gauzak ateratzea gustokoa izango nuke.

*Iker, Andoni eta Arkaitz*



## Javi

**Irakurri al duzu "Ola-Berria" aldizkaria?**
Bai, irakurri dut.
**Gustatu al zaizu?**
Bai, asko gustatu zait.
**Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Olaberriko hiru mugatako txangoa da bat asko gustatu zaidana.
**Zer gustatuko litzaizuke aldizkarian irakurtzea?**
Horoskopoa, sukaldaritzako gauzak, kirolak, osasuna...

*June, Nahia, Ibai eta Markel*



## Arantxa

**Irakurri al duzu "Ola-Berria" aldizkaria?**
Bai irakurri dut.
**Gustatu al zaizu?**
Bai, orokorrean dena gustatu zait.
**Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Esan bezala, dena gustatu zait
**Zer gustatuko zitzaizuke aldizkarian irakurtzea?**
Dagoen bezala ondo dago, dena gustatuko litzaidake.

*Laia, Maia, Sara eta Lorea*



# Internet de las cosas (iot)

Se conoce comúnmente con las iniciales de su nombre en inglés "Internet of Things" (IoT)

Dicho de manera sencilla, IoT es un concepto que hace referencia a que muchos de los objetos de nuestro día a día están conectados a Internet, y a partir de ahí pueden ser accesibles por dispositivos que estén también conectados a Internet.

Es uno de los conceptos que últimamente han pasado la frontera del mundo de los "frikis de la tecnología" y ya se empieza a oir hablar de él en la prensa tradicional y en foros que no están formados por personas eminentemente tecnófilas y que además penetran directamente en nuestro día a día.

No en vano, la prestigiosa empresa consultora Forrester Research, etiqueta a IoT como una de las 5 tecnologías que van a cambiar nuestra vida para el 2021. (Como apunte, esas 5 tecnologías son: IoT, la Inteligencia Artificial, la Realidad Aumentada, los agentes inteligentes y las redes inalámbricas híbridas)

La IoT es una evolución natural de los cambios que se venían dando en Internet.

Aunque no ha pasado mucho tiempo (o quizás si) conviene hacer un repaso de los cambios de concepto que se han venido dando en Internet. En el origen, cuando Internet empezó a usarse fuera del mundo militar y universitario (si, Internet nació como un proyecto militar) los usuarios acudían a Internet para consumir información (La web era un escaparate). En una fase posterior (la web 2.0) los usuarios empezaron a aportar información ("Colaboración" era la palabra). Ahora estamos en el momento de las redes sociales, donde todo (lo que se quiere) se comparte y donde esperamos recibir respuesta casi en tiempo real a cualquier petición que lancemos.

Paralelamente a estos cambios en el uso que hacíamos de Internet, las comunicaciones iban mejorando. Lo que hace unos años llamábamos muy orgullosos las "autopistas de la información" no dejaban de ser en realidad unas carreteras vecinales en las que no se podía conducir muy deprisa. A día de hoy, las líneas de comunicación han ido mejorando (Algo de eso conocemos ya en Olaberria), y la fibra óptica llega a muchos hogares y centros de trabajo.

Un cambio más "técnico" que va a permitir la conexión de cualquier objeto a Internet es el nacimiento del protocolo IP versión 6 (IPv6), ya que el anterior IPv4 que se venía utilizando, se estaba colapsando y ya no era capaz de poder dar una dirección física a cada objeto que se quisiera conectar a Internet. Se calcula que con IPv6 se podría dar una dirección física a cada átomo existente en la tierra, con lo que parece que esta vez no nos quedaremos cortos con el direccionamiento.

A día de hoy, un sensor colocado en nuestra pulsera o en nuestro Smartphone, permite saber los pasos que damos, cuántos kilómetros hemos andado, etc... Y envía esa información a una App en Internet que se encarga de almacenarla, tener nuestro histórico y gestionarla. Nuestro Smartphone, nos



conduce por cualquier carretera gracias a su función como GPS. Este GPS es capaz de decirnos que en nuestro camino hay un atasco y nos ofrece otras alternativas. Todo eso es información que sensores de todo tipo recogen y envían a Internet para que podamos usar esa información del modo más adecuado. Además al llegar a la ciudad, sensores colocados en aparcamientos controlan cuántos sitios tenemos para aparcar y dónde están colocados y envían esa información para que podamos utilizarla.

En contraposición con todas las cosas interesantes que IoT nos va a poder ofrecer, a día de hoy, se han detectado algunos problemas de seguridad. El pasado mes de octubre, hubo un ataque generalizado a importantes servidores de Internet. El origen de ese ataque parece estar relacionado con IoT. Es decir, miles de objetos conectados a Internet sobre los que no se habían tomado ni las más mínimas medidas de seguridad, fueron presa fácil de los atacantes, que los utilizaron para lanzar el ataque a los servidores. Si este hecho ha servido para que nos tomemos más en serio la seguridad, bienvenido sea. La contraseña "1234" y similares (o la ausencia de contraseñas) no son una buena idea a la hora de tener objetos conectados a Internet.

IoT ya está aquí, pero aún no se han desplegado muchísimas de sus aplicaciones, y es lo que iremos viendo a corto y medio plazo. Pero como en toda tecnología, las cosas van muy deprisa. Aún no tenemos desplegada correctamente la IoT, y ya se empieza a oir hablar de la Internet de las nanocosas. Sólo imaginemos un pequeño dispositivo viajando por el interior de nuestro cuerpo y tomando mediciones sobre nuestra sangre y tejidos en tiempo real.



En Olaberria, disponemos de un panel informativo en el barrio de Ihurre, donde el Ayuntamiento nos va suministrando la información que cree oportuno. Y el control de esa información se puede hacer desde cualquier dispositivo conectado a Internet. Es nuestra primera utilidad (muy superficial) como "Smartcity" (Ciudad inteligente) utilizando IoT.

Del mismo modo, nuestro ascensor de casa, enviará información del estado de sus componentes y se podrá saber cuándo algo está a punto de fallar. La compañía de ascensores, será capaz de corregir esos problemas antes de que ocurran. Lo mismo ocurrirá con las máquinas de nuestros centros de trabajo. El ahorro en reparaciones y sustituciones de máquinas será muy considerable.

# Jolas txokoa
## 2016-2017 ikasturtea

Jolas txokoa martxan jarri da dagoeneko, irailaren 26ean hasi ginen eta ekainaren 23ra arte egongo gara arratsaldero 16.30etatik 19.00etara. Jolasa, tresna nagusi hartuta, momentu atsegin eta goxoak biziko ditugu, haurrek gustuko dituzten ekintzen bidez.











Lehenik eta behin zerbitzuaren helburu nagusiak azalduko ditugu, jolas txokoaren helburuak bermatzeko asmoarekin. Protagonismoa haurrari berari emango zaio, zertan eta nola jolastu nahi duen erabaki dezan. Gizarteratzeko harremanak eta trebetasun sozialak garatuko ditugu, inteligentzia emozionalaren lanketa tarteko delarik. Bestalde herri sentimendua eta herriarekiko atxikimendua indartzen saiatuko gara eta ideien sorkuntza eta hedapena suspertuko dugu, sormenaren lanketa tarteko dugularik.

Irekita dagoen ordutegiaz gain, jakin beharreko beste pare bat arau ere badira. Bata ordu eta erdi egon ahalko da haurra gehienez jolas txokoan eta bestea, irteera eta sarrera orduak guraso edo haurraren zaintza duenaren eskuetan geratzen dira.

Hori guztia aurrera eraman ahal izateko metodologia bat izango dugu, batez ere eta esan bezala, jolasa erabiliko dugu gure tresna nagusi bezala nahi duguna lortu ahal izateko. Jolas txokoa, txoko desberdinetan banatua dugu haur bakoitzak nahi duen momentuan, nahi duen jolas edo ekintza burutu dezan. Batez ere, haurra gustura dagoenean lortzen baitira fruiturik honenak eta inoiz burutik kendu gabe, haurra ongi pasatzera eta bere herriko lagunekin momentu on bat pasatzera datorrela, beti hezitzailearen esku hartzea kontuan izanik.






# Txirrinduz *Olaberritik*

Aste honetan, eskolako guraso batek, Ivan Gomezek, 1. Zikloko ikasleekin bildu zen. Alde batetik, Olaberritik txirrinduz egiteko ibilbide baten informazioa eskatu zioten ikasleek eta berak hauxe proposatu zigun, berak hainbat egunetan egiten duena:

Hasi Hineko lantokitik(Ihurre), goraka doan pistatik eta kanposantura iristen den bidera helduko gara.

Ondoren ezkerrera hartu eta asfaltatuta dagoen errepidea jarraituta Garitain (Laida) baserrira iritsiko gara. Zuzen jarraitzen badugu eta ondoren aldapa behera jaitsita, Indarrera iritsiko gara.

Ibilbidea motza da baina Ivanek dioen bezala, Olaberriko bideek ezaugarri bat dute komuna, aldapatsuak direla. Nahiz eta distantzian kilometro gutxi izan, azkenean aldapak denbora eramaten du.

Honetaz gain, ikasleekin solasean egon zen eta azpimarratu zuen seguritateko neurrien erabiltzearen garrantzia: kaskoa, argiak (bai guk ikusteko, bai besteek gu ikusteko), arropa koloretsuak (txirrindularia hobeto ikusteko, batez ere errepideetan)...

Ivanek bere bi bizikletak, muntain bike eta errepidekoa, ekarri zituen eta bakoitzaren ezaugarriak eta erabilpenak azaldu zituen.

Ondoren bere entrenatzeko ohiturei buruz ere mintzo zen, lasterketetan parte hartzeko lanaren garrantzia, eta bere gustukoa denez ahal duenean zenbat ordu eta zenbat kilometro egiten ditu erakutsi zien gure ikasleei.

Eta bukatzeko ikasleek gehien espero zutena: Olaberritik elkarrekin txirrinduz paseo batekin izugarri disfrutatu genuen.

MILA ESKER IVAN!!!



# Jubilatuen martxa Donostian

Olaberriko 8 jubilatuk hartu zuten parte
Donostiako urteroko jubilatuen martxan.

**Jubilatuen martxa donostian**

Herriko 8 jubilatuk, Urriaren 22-an urteko jubilatuen martxa probiltzialean parte hartu zuten. Aurten Donosti zuten eszenatoki eta probiltzi guztiko jubilatuak elkartu ziren, denera 600 pertsona. " Ederki pasatzen dugu egun honetan, gainera beste herriko jubilatuekin elkartzeko toki bat izan da. Urtero herriz aldatzen denez oso polita izaten da" dio Pili Macazagak.

10km- tako martxa egin zuten Donostian. Hondarreta-Aquarium- sagrado corazón-gros-estazioa-amara- atano III. 3 Gune zituen ibilbideak eta bertatik 8 partaideek batera pasa behar zuten zeramaten txartelak seilatzeko. Gunetan hamaiketakoa ere jateko aukera izan zuten indar berritzeko.

Donostiko alkateak ongietorria eman zien parte hartu zuten guztiei eta bakoitzari niki bana oparitu zien martxan jantzita eraman zezaten. Dantzaldirik ez zen falta izan jaialdi honetan eta Atano III bazkaldu ondoren musikaren bukatu zen jardunaldia.



**Marcha provincial de los jubilados en Donostia**

8 Jubilados de Olaberria participaron en la marcha provincial de los jubilados el 22 de Octubre en Donostia. En total se juntaron 600 personas, representando a todos los pueblos de Guipuzcoa. "Lo pasamos genial, nos brinda la oportunidad de conocer y juntarnos con jubilados de otros pueblos. Todos los años se realiza en un pueblo diferente y suele ser muy bonito" dice Pili Macazaga.

El alcalde de Donostia dio la bienvenida a todos los presentes y obsequio con un niki a cada participante para poder realizar el recorrido de 10 Km. La marcha empezó en Hondarreta pasando por Aquarium, Sagrado corazón, Gros, Estacion,, Amara y finalizo en Atano III, con una comida y baile.



# Joxi eta Belenen
## abentura bizikletaz

Joxi eta Belen bizikleta hartu
eta Olaberritik Erromara joan ziren.

Joxi eta Belen maiatzaren 7 an beraien ametsa betetzen hasi ziren.

Olaberritik Erromarako bidaia harrigarriaren lehenengo etapak hasi zituzten.

Donostiarantz abiatu ziren eta bertan beraien familiarekin izan ziren. Lagunek bidaian lotarako beharko zituzten etxeak aurkitzen lagundu zien. Handik Biarritzera joan eta gero Frantziako canal del Garona y del midi bidez zeharkatu zuten Frantziako kostaldea iristeko. Hiri asko eta politak pasatu zituzten; Toulouse, Monaco, Niza Cannes, Montpellier, eta beste txikiagoak ere zeharkatuz, (Toulouse eta Niza pasatu zituztelarik). Hiri hauek bost egunetan zehar ezagutu eta gero bere bidaiarekin jarraitu zuten.

Frantziako kosta atzean utzita Italian barrena abentura jarraitu zuten, horretarako egunero goizeko 7 etan esnatzen ziren eta 5 ordu ibili ondoren, 60 km gutxi gora behera, aukeratutako herrira iritsi eta arratsalde herria ikusteko aprobetxatzen zuten.

Lo egiteko lekua berriz, etxe partikularrak ziren eta etxe hauek bizikletak gordetzeko lekua izan behar zuten derrigorrez.

Etapa hauek aurrera eramateko egunez bidean zehar ura, fruta eta gazta urdaiazpikoarekin jaten zuten, arratsaldean berriz afaltzeko entsalada eta pasta jaten zuten indarberritzeko.

Ibilbide hau eginez Genova, Cinque-terre, Pisa, Livorno... joan ziren Erromarako bidea egin arte.Bidean lagun asko egin zituzten eta laguntzeko prest zegoen jende ugari ere topatu zituzten.

Azkenean hainbeste egun bizikletaz egin ondoren, beraien helmugara iritsi ziren beraien ametsa beteaz. Erromara iritsi eta han 5 egun gelditu ziren hango leku eta monumentuak ezagutzeko asmoz.

Bidaia bukatzerakoan, Olaberriko eskolara etorri eta haien abentura kontatu ondoren, gu guztiori bidaiatzeko gogoa piztu zitzaigun.





# Freskoak, garaikoak eta ahal dela ekologikoak

Elikagai freskoak, garaikoak eta ekologikoak baserritarrei zuzenean azoketan edo auzo zein herriko dendetan erosita, gure osasuna eta ingurumena zaintzeaz gain, tokiko ekonomia aktibatzen dugu.

Elikadurekin zerikusia duten gaixotasunak gero eta ugariagoak dira gure artean, batzuk zuzenean elikadurarekin lotzen ditugu eta beste batzuen kasuan, badakigu pairatzeko arrisku handiago dagoela gure elikadura behar bezala zaintzen ez badugu.

Honen eraginez elikadura osasuntsua eta mirarizkoari buruzko teoriak ugaritzen ari zaizkigu. Elikagai batzuk kaltegarriak izatetik onuragarriak izatera pasatzen dira irizpide aldakorren arabera. Fede maila handia eskatzen duten teoriak ere baditugu edo arrakasta handia duten elikagai aberastuak, laborategian osatutako jakiak elikagai naturalak baino hobeagoak direla sinistarazten digute.

Bestalde badaude bi ikuspegi interesgarri gure elikadura sistemari lotuak. Lehena klimaren krisiarena, aldaketa klimatikoaren atzean dagoen elementu garrantzitsuenetarikoa elikadura sistema globalizatua baita, energia fosilaren gastu izugarria eta eragiten den kutsadura, besteak beste. Bigarrena, elikagaiak ekoizteko baserritarren lan zein bizi baldintza kaxkarrak direla kasu askotan.

Batiburrillo honetan badaude irizpide batzuk errazak eta edonoren eskura daudenak gure osasuna eta ingurumena zaintzen laguntzeko, baita gabonetan ere: elikagai freskoak, garaikoak eta ekologikoak.

Freskoak, eduki nutritibo handienekoak eta gure gorputzak errazenean ezagutu eta prozesatzen dituenak direlako. Tokiko elikagai freskoek bilgarri gutxiago erabiltzen dituzte eta bere garraioan energia gutxi erabiltzen da, hondakinak eta kutsadura gutxiago sortuz.

Garaikoak, naturak sasoi bakoitzean bizidunek behar dutena, berezko ekoizpen zikloen bidez eskaintzen du. Garaiko elikagaiek berezko zaporea, usaina eta eduki nutritiboa eskaintzen digute. Ekoizpenean, energia gastu txikiagoa behar da eta gaixotasun eta izurrite gutxiagoa sortzen dira.

Ekologikoak, naturalak, lurra zainduz eta naturaren zikloak jarraituz, pozoirik gabe, tokian tokiko teknikak jarraituz sortutako elikagaiak dira. Animalien elikaduran eta zaintzan berezko fisiologia errespetatzen da.

Elikagai ekologikoak transgenikorik gabekoak dira, egun merkatuan dauden elikagai gehienak ez bezala.

Osasun arazoak sortzen dituzten aditibo eta hondar kimikorik ez edukitzeaz gain, bere konposizioetan badituzte elementu interesgarriak: belar freskoa jaten duten animalien haragia, esnea edo arrautzek azido graso insaturatuen portzentajea altua dute, adibidez.

Ingurumenari dagokionez, ekoizpen ekologikoak onura asko ditu. Besteak beste, pozoirik ez da erabiltzen eta zikloak ixten saiatzen dira (nitrogenoa, ura, simaurra,..).

Irizpide hauekin gainera, prezio duinean zuzenean baserritarrari, azoketan edo auzo zein herriko denda txikietan erosi ahal ditugu, tokiko garapena ere sustatuz.




# Lekarotzen
## asteburu pasa



Amaiur herria, Xorroxin urjauzia, Elizondo eta Zugarramurdi ezagutzeko aukera izan genuen uztail bukaeran egin genuen txangoan.

Uztailaren bukaera asteburu pasa ederra egin genuen Baztanen. Amaiur herriaren historia eta bertako gazteluaren nondik norakoak ederki azaldu zizkigun guidak. Herri sarreran dagoen errota ere ikusi genuen martxan, baten batek bertan xehetutako irinarekin egindako taloa ere jan zuen. Benetan ikustea merezi duen herria da Amaiur.

Zugarramurdiko kobetan, ibilbide motz baten ondoren taldeko abeslariek, Miren eta Aitor, "aldapeko sagarraren" abestia abestu ziguten bertaratu ginen guztiei. Momentu magikoa bihurtu zen kobatako bixita.

Heldu eta haurrak pozik ibili ginen, Xorroxinera ere bakoitza bere erritmoan joan ginen eta batzuk ez zuten hotzik sentitu uretan sartzeko, hotza baino hotzagoa egonagatik! Bazkaltzeko beti zegoen frontoi edo belardiren bat koadrila osoak bazkaltzeko!

FIN DE SEMANA EN LEKAROTZ

Merece la pena conocer Amaiur, un pueblo con mucha historia y encanto. Conocimos la historia del arco y el castillo que están en el pueblo. En la entrada del pueblo hay un molino que se puede visitar para ver como se muele el grano y después degustar el talo hecho con esa harina.

En las cuevas de Zugarramurdi Aitor y Miren se lanzaron a cantar "aldapeko sagarraren" y gracias a la acústica de las cuevas y sus voces, aquellos momentos se volvieron mágicos por un momento.

En este Valle, hay riachuelos que en su trazado se convierten en cascadas, como la de xorroxin. Tras un paseo conseguimos llegar hasta la cascada y los mas intrépidos se atrevieron a meterse en el agua.






# Laburrean

Laburrean, azken hilabetetan antolatu diren kultur ekintzen berri.

1

## Gaztiña jana

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Azaroak 1ean, Asteartez, Gaztiña jana antolatu zen Olaberrian. Bertaratuek 225 kg gaztain eta sagardoa dastatzeko aukera izan zuten. Jende mordoxka gertutatu zen eta lerro hauen bidez, eskerrik beroena, urtero antolaketa lanetan ibiltzen zareten guztioi! Datorren urtean gehiago!

La castañada tradicional, se celebró el 1 de noviembre en Olaberria. Los que se acercaron, pudieron degustar 225kg de castaña y sidra. Como todos los años, queríamos agradacer al equipo que hace posible la castañada anual.

2

## Euskararen eguna

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an izaten da, Frantzisko Xabierkoaren egunean. Frantzisko 1552ko abenduaren 3an hil zen, eta, kondairak dioenez, hil aurreko azken hitzak bere ama-hizkuntzan izan ziren, euskaraz.

1949an Eusko Ikaskuntzak ezarri zuen egun hau euskararen nazioarteko egun gisara. 1995ean Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak bat eginik, Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu zuten.

Egun hau osptzeko, Olaberrian ere jai ekitaldiak egiten dira. Urtero bezala, Herri eskolako haurrek beraien ekitaldia prestatu zuten. Ondoren, Kuttun guraso elkarteak, askaria prestatu zuen eta ondoren haurrentzako ekintza bereziak izan ziren jolas txokoan.

El Día Internacional del Euskera, institucionalizado por el Gobierno Vasco y la Real Academia de la Lengua Vasca en 1995, se celebra anualmente el 3 de diciembre. Con motivo de dicha celebración, diversas asociaciones, entidades públicas y particulares organizan numerosas actividades (mesas redondas, exposiciones, talleres, ferias, presentaciones y todo tipo de espectáculos) ese día señalado en muchos de los rincones del País Vasco, para apoyar y homenajear el euskera.








**RAVIOLI DE PIÑA NATURAL EN ALMIBAR CON SORBETE DE MANDARINA Y PASAS DE CORINTO, CIRUELAS DE CALIFORNIA Y OREJONES**

**Ingredientes. Para 6 personas.**
Media piña natural. La cortaremos como el folio. Fina.
18 ciruelas de california sin hueso.
18 pasas de corinto sin hueso.
18 orejones.
2 cáscaras de limón.
200 gr. de azúcar.
0.750 cl de agua, para hacer el almíbar.
Media rama de canela.
1 tarrina de sorbete de mandarina.
O.......1 tarrina de helado de yogurt y frutos rojos.
Plato sopero o bol de desayuno, para el montaje.

Necesitaremos 2 bol (1 para colar la mitad del almíbar, y otro para reservar la otra mitad junto con los orejones, pasas y ciruelas)

**Elaboración:**
1. Haremos el almíbar, con los frutos, las cascaras de limón, el agua, el azúcar y la canela.
2. Cuando veamos que el almíbar, es fino, lo colamos en dos boles. Dejar enfriar.
3. En uno estará el almíbar, la mitad y en el otro los orejones, ciruelas y pasas de corinto.
4. Pelaremos la Piña natural, y la cortaremos, muy fina, como un folio. La guardaremos en el Almíbar.

GUARDAMOS LOS DOS RECIPIENTES DE ALMIBAR EN LA NEVERA.

5. Nota: Si lo hacemos de víspera, perfecto, ya tenemos casi el postre preparado para su montaje.

MONTAJE DEL PLATO. Es muy fácil.
Plato sopero... ponemos una lámina de piña que ha estado en almíbar.
Hacemos una gran bola de helado, con una cuchara sopera.
Y le añadimos otra lámina de piña natural.
Que por, el efecto del frío, ya tenemos un Ravioli

PERFECTO, SOLAMENTE NOS QUEDA, AÑADIR......... 2 OREJONES ,2 CIRUELAS DE CALIFORNIA, Y 2 PASAS DE CORINTO.
El plato ya está.

3

**Gabon kanpaina Olaberrian**
Urtero bezala, gure herriko haurrek gabonetan ere ekintza desberdinak egiteko aukera izango dute. Hain zuzen ere, 3-10 urteko haurrentzat ekintza bereziak izango dira jolas txokoan eta gaztetxoentzat berriz (10-17 urtekoentzat) irteera eta tailerrak antolatu dira.

Como todos los años, los niños y jovenes de olaberria, tendrán diferentes actividades para las vacaciones navideñas. Los niños de entre 3-10 años, podrán participar en el jolas txokoa. En cambio, para los más jovenes, se ha organizado un taller de cocina y una salida.




# eLiburutegia

Badira urte batzuk, liburutegiak aro digitalean sartzeko urratsak ematen hasi zirela. Horrela sortu zen E-liburutegia. Beraz, gaur egun, aukera dugu Interneten bitartez liburu digitalak maileguan hartzeko. Hona hemen, jakin beharreko kontu guztiak.

eLiburutegia

## Zer da eLiburutegia?

Ongi etorri Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen liburutegiek eskeintzen dizuten zerbitzu berri honetara. eLiburutegia plataforma bat da Interneten bidez eduki digitalen irakurketa errazten duena. Irakurketa hori streaming bidez, ordenagailuaren bitartez edo gailu mugikorrak direla medio burutu daiteke. Zerbitzu horretara sartzeko gogoratu helbide elektroniko hau: www.eliburutegia.euskadi.eus.

## Nola sartu eLiburutegira?

Euskadiko Irakurketa Sareko Publikoko bazkidea bazara liburutegiko beste zerbitzuetara sartzeko erabiltzen dituzun datu berdinak (bazkide zenbakia eta pasahitza) sartzearekin nahikoa da. Pasahitza ahaztu baduzu zure liburutegira jo beharko duzu eta berri bat emango dizute. Oraindik ere Sareko liburutegi publiko bateko erabiltzailea ez bazara eska ezazu zure txartela zure udal liburutegian eta plataformara sartzeko beharrezko datuak emango dizkizute.

## Qué es eLiburutegia?

Te damos la bienvenida a eLiburutegia y te explicamos brevemente en qué consiste este nuevo servicio que te ofrecen las bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi. eLiburutegia es una plataforma que facilita la lectura de contenidos digitales a través de Internet, bien en streaming, en ordenador o en dispositivos móviles. La página de inicio de este servicio es: www.eliburutegia.euskadi.eus.

## ¿Cómo accedo a eLiburutegia?

Si ya eres socio/a de la Red de Lectura Pública de Euskadi es suficiente con que introduzcas los mismos datos (número de socio/a y clave) que utilizas para acceder al resto de servicios de la biblioteca. Si has olvidado la contraseña debes acudir a tu biblioteca para que te asignen una nueva. Si aún no eres usuario/a de una/ninguna biblioteca pública de la Red solicita el carné en tu biblioteca municipal y te facilitarán los datos necesarios para que accedas a la plataforma.

## ¿Qué encontrarás en eLiburutegia?

La posibilidad de leer en formato digital. Podrás acceder a las últimas novedades publicadas, clásicos de la literatura y una amplia selección de obras hecha por las bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi.

También puedes presentarnos sugerencias de compra que incluiremos en eLiburutegia una vez que hayamos comprobado que están disponibles en formato digital.

Requisitos:

1. Ser socio de una de las bibliotecas de la Red. Si aún no lo eres







**Zer aurkituko duzu eLiburutegian?**
Formatu digitalean irakurtzeko aukera. Azken nobedadeak, literaturako klasikoak eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek egindako hautaketa zabal bat eskuratzeko aukera izango duzu.

Erosketa-proposamenak aurkezteko aukera izango duzue ere, eta eduki digitalean daudela egiaztatu ondoren eLiburutegian sartuko ditugu.
Baldintzak:

1. Sareko liburutegi bateko bazkide izatea. Gogoratu, oraindik ere bazkide txartela ez baduzu, eska ezazu hurbilen duzun udal liburutegian.
2. Internet-konexioa.
3. Gailu bateragarria eta Interneterako sarrera izatea.

**Zalantzarik izanez gero norengana jo dezaket?**
Mailegu zerbitzu berri honen edozein zalantza argitzeko zure liburutegira jo ezazu. Bertan, behar duzun informazioa eta argibideak emango dizkizute.

Ohiko galderak atalera jotzea gomendatzen dizugu, eta hala ere ez baduzu zure zalantzen erantzunik aurkitzen honako helbide honetara idatzi dezakezu. liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

Udal liburutegiak erabiltzaileen eskura jarriko ditu liburu elektronikoak irakurtzeko 4 gailuren mailegua. Horien bidez formatu digitaleko testuak pantailan irakurri ahal dira.

**Erabiltzaileak**
Zerbitzu hau erabili ahal izateko, Euskadiko Irakurketa Publiko Sareko txartela, eta horretarako, dokumentuak ez du blokeatuta egon behar mailegurako araudia ez betetzeagatik. Era berean, interesa duten erabiltzaileek 18 urte beteak eduki behar dituzte.

Erabiltzaileek zerbitzu hori erabiltzeko, informazio zerbitzura jo beharko dute eta han, liburu elektronikoen erabilpenari buruzko orientazioa emango zaie. Bestalde, erabiltzaileek dokumentu hau onartu eta adostasuna sinatuko dute.

solicita tu carné en la biblioteca municipal más cercana.
2. Conexión a Internet.
3. Disponer de un dispositivo compatible y de acceso a Internet.

**¿Si tengo dudas a quién puedo dirigirme?**
Para cualquier duda sobre este nuevo servicio de préstamo ponte en contacto con tu biblioteca. Te informarán y te aclararán cualquier cuestión al respecto.

Te aconsejamos visitar el apartado de preguntas habituales; y si aún así no encontraras la respuesta a tus dudas puedes escribir a: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

**Prestamo de ebook en la biblioteca de Olaberria**
La Biblioteca municipal de Olaberria pone a disposición de sus usuarios el servicio de préstamo de lectores de libros electrónicos que permiten leer en pantalla textos en formatos digitales.

**Usuarios**
Para hacer uso de este servicio será necesario poseer el carné de la Red de Lectura Pública de Euskadi, y siempre que éste no se encuentre bloqueado por incumplimiento de la normativa de préstamo. Igualmente, los usuarios interesados deberán tener 18 años cumplidos.

Los usuarios para hacer uso de este servicio deberán acudir al servicio de información que les orientará sobre el uso de los libros electrónicos.También aceptarán y firmarán la conformidad con el presente documento.

## Liburutegitik hainbat ekimen antolatu dira

Urriak 24, Liburutegiaren nazioarteko egun dela eta liburutegitik hainbat ekintza antolatu dira.
Urrian zehar, liburutegira gerturatu diren guztiek oparitxo bana jaso dute. Erabiltzaileen artean, liburuak zozketatu dira. Hauek izan dira irabazleak: ARITZ MAIORA, MARA NALDAIZ ETA ORTZI ARANBURU. Zorionak eta jarraitu liburuak irakurtzen!
Urriak 18an berriz, Odei Agirre etorri zen ipuin lotsatiak kontatzera. Mundiala izan zen!

AZAROAK 25 IPUIN KONTAKETA SAIOA HERRI ESKOLAN
Ines Bengoa izan zen gure artean eta haurrek margo ipuinak entzuteko auker a izan zuten. Iratxoen istorioak, koloreen abenturak…kontatu zizkigun.Saioaren bukaeran, haurrek marrazki bat egiteko aukera izan zuten. Haurrak txunditurik egon ziren. Mila esker, Ines!!

Desde de 1997, cada 24 de octubre se conmemora el Día de la Biblioteca. La propuesta surge de la Asociación Española de Amigos del Libro Infantil y Juvenil, apoyada por el Ministerio de Cultura, en recuerdo de la destrucción de la Biblioteca de Sarajevo, incendiada el 1992 durante el conflicto balcánico.
La iniciativa nació para trasladar a la opinión pública la importancia de la biblioteca como lugar de encuentro de los lectores de todas las edades con la cultura, y como un instrumento de mejora de la formación y la convivencia humana.
Hemos organizado con este motivo algunas actividades centradas en este tema:

- Durante todo el mes de octubre, los usuarios que se han acercado a la biblioteca han recibido un pequeño detalle.
- Se han regalado libros entre los usuarios.
- Odei Agirre, vino a contarnos sus cuentos al jolas txokoa, el 18 de octubre.
- Ines Bengoa, vino a la escuela a contar MARGO IPUINAK, cuentos llenos de ternura, emoción y diversión.

A través de estas acciones se pretende educar a los niños y mayores en los valores de la lectura y la cultura, destacar como no, la misión de las bibliotecas como centros socializadores e integradores y demostrar que los libros están al alcance de todos los vecinos.

# Kultur agenda

## Abendua/Diciembre

24: Olentzero etorriko da herriko haurrak bisitatzera / Nos visitará Olentzero
26-30: Gabonetako haurrentzako ekintzak / Colonias de invierno

## Urtarrila/Enero

2-5: Gabonetako ekintzak haurrentzat / Colonias de invierno
5: Errege kabalgata
Taila ikastaroa martxan / Curso de talla

## Otsaila/Febrero

4: Santa Ageda bezpera / Vispera de Santa Agueda
27-28: Ihauteriak / Carnavales.

## Martxoa/Marzo

Otsailak 27 - Martxoak 5: Kultur astea / Semana cultural
5: Herrialdeen eguna / Dia de las Comunidades
8: Emakumeen eguneko afaria / Cena de mujeres
30: Korrika hasiera / Empieza Korrika 2017

## Apirila/Abril

9: Korrika amaiera / Finaliza Korrika 2017
10-21: Aste santuetako ekintzak haurrentzat / Colonias de Semana Santa
29-30-1: Ihurreko jaiak / Fiestas de Ihurre

## Maiatza/Mayo

3: Santa Kutz eguna / Santa Cruz

## Ekaina/Junio

23-24-25: San Joan jaiak / Fiestas de San Juan
26 Udalekuen hasiera / Colonias de verano




## Staff

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira / Han participado en esta edición:
Kuttun Guraso elkartea • Olaberriko Herri eskola • Olaberriko jolas txokoa • Olaberriko liburutegia • Olaberriko udala • Joseba Lozares • Belen Balerdi • Joxi Zudaire • Janire Garro • Judit Garcia • Pili Makazaga • Ivan Gómez • Josetxo Sesé • Larraitz Arratibel